

PLaza

Galeusca ›

Iruditik hizkuntza, hizkuntzatik irudia

Literatura garaikide euskalduneko, galiziarreko eta katalaneko iruditeriaz mintzatu dira Galeuscan

ARANTZAZU MUÑOZ

Mondoñedo • Berriemaile berezia

Errealitatean dagoen hori guztia indaztatzeko balio du hizkuntzak. Diren irudiei eta gizakiak sortzen dituen irudiei izenak emateko. Era berean, orde, hizkuntzak berak ere sor ditzake irudiak, hitzek balio baitute eta sinbolo baitira.

Hizkuntzaren eta irudien aferaz jardun ziren atzo Mondoñedon, (Lugo, Galizia) Galeuscan. Galiziako, Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako literatura garaikideko iruditeria aztertzeko hiru hitzaldi eman zituzten, oso bestelakoak hirurak. Baina, hirurek aipatu zuten hizkuntzak duen garrantzia iruditerian.

«Lurrak ez dauka izenik, urak ez dauka izenik, harriak ez dauka izenik. Eman egin behar zaio», esanaz hasi zen Xabier Gantzarainek *Maitetasunaren koordinadak* saioarekin eta ume garaia ekarri zituen gogora: «Niretzat lurra Azkoitia zen, ura Urola zen, harria Izarraitzen. Nik ez nuen maitasunik eza gutu; etxean maitetasuna zen nagusi».

Euskal literaturako iruditeria garaikidea lantzeko, bere bizitzako maitasunaren koordinadak marraztu dituzten hiru liburu aztertu zituen Gantzarainek: Jose Luis Otamendiren *Lur bat zure minari*, Koldo Izagirren *Non dago Basques' Harbour* eta Inigo Aranbarriren *Harrien lauhazka*. Horietan ageri den iruditeria berea ere bade-lako.

'POLDER'-A, PORTUA ETA ABERRIA. Lehen obratik irudi nagusi bat aipatu zuen Gantzarainek: *polder*-a, urari ebatsitako lurra: «Lur zakarrak dira, gaziak, antzuak, eta urtetako lana eskatzen dute han ereindakoak ezer emango badu. *Polder*-ak etorkizunerako proiektua dira».

Polder-etako lurra aipatuta, zuztarretara egin zuen salto, jendea bizi dadin beharrezko diren zuztarretara: «Jendea senti dadin komunitate bateko, eta ez inkomunitate bateko biztanle bakar».

Eta iruditeriaz ari zelarik, maitasuna iruditatzeko eskatu zien entzuleei, «norberak baino ezin dio irudi bat jarri bere maitasunari».

«Non dago Basque's Harbour / Galdetzen badut / Ez da mapa bat ekar diezadazun», Izagirrek idatzitakoa hasi zen irakurtzen jarraian. Aipatutako bigarren obratik beste irudi bat nabarmendu zuen: portua. «Mundua sartzen da portura, ikatza, burdina arraina, jendea mundua».

Gantzarainen esanetan, Otamendik lurra nahi du bere minarentzat eta maitasunarentzat. Izagirrek, berriz, portua jarri dio lurrari, mundura ateratzeko, eta mundua lurrera etortzeko. «Hemen egonik nonahi egotea dela ari zaigu esaten».

Azken liburutik, Aranbarriren *Harrien lauhazka*-tik beste irudi bat ekarri zuen gogora: aberria. Bere aberriaren koordinadak ematen ditu Aranbarrik liburuan,

irakurleak erabaki dezan bere aberriaren koordinadak bat datozen idazlearekin. «Koordenada horiek maitetasunaren koordinadak dira, maite duen eta gorroto duen mundua erakusten digu».

Hiru idazle, hiru liburu eta hiru errealitate poetiko erakutsi ondoren, bere kezka plazaratu zuen: «Poema hauetan, eta baita beste liburuetan ere irakurleak ulertzen ez dituen hitzekin egiten du topo».

Zer erakusten du horrek?». Eta goeta batekin erantzun zion bere galderari: «Iruditeria hitz bakoitzaren zuztarretik elikatzen da. Maitasuna eta maitetasuna sentimendu bera adierazteko bi hitz dira, baina diferenteak dituzte zuztarrek eta diferenteak dira iradokitzen dituzten iruditeriak».

Etorkizunera begira amaitu zuen hitzaldia Gantzarainek. Bere ustez, beste ezer baino lehen hizkuntzaren estetika arduratu beharrezkoa da: «Nola sentitzen dugun hitz bakoitza, zer esaten dugun eta zer ez, zertarako balio dugun, eta hori, jaun-andreok, ez dakit zenbaiteraino egiten den».

ZENTRIPETU - ZENTRIFUGO ARTEAN. Literatura galego garaikidearen iruditeriaz hitz egiteak diktaduraren



Euskal literatura garaikideko iruditeria aztertu zuen Gantzarainek. A.M.



Lugotik Mondoñedora bidean, Manuel Maria poetaren jaioterrian, Outeiro do Reyn, geldialdixoa egin zuten idazleek poeta omentzeko. A.M.

Klasikoetako mitoen premian

Globalizazioak literaturaren iruditeria dakarren berdintzea saihesteko beharra azpimarratu dute

A. M.

Lugo

Ondare bat hartu eta birformulatu egiten du idazleak. Ondoren, bere garaiko irakurleei uzten die bere obra oinordetzan, baita etorkizuneko irakurleei ere. Denboraren proba gainditzen badu, idazlea eta

obra klasiko bilakatzen dira. Denbora baita testu bat klasiko den edo ez erabakitzen duena.

Idazleak literatur iturrietatik edaten du, gizarteak klasikotzat dituen iturrietatik. Horiez aritu ziren herenegun idazle euskaldunak, katalanak eta galiziarrek Lugo, Galeuscan. Globalizazioaren ondorioz mendebaldeko gizarte guztiek partekatzen dituzten mitoa badirela jakinik, iruditeriaren uniformizazioa saihesteko literatura klasikoetako mitoak mantentzeko beharra azpimarratu zuten, besteak beste.

Euskal literaturako klasikotzat XX. mende aurrekoak hartu dituela azaldu ondoren, orduko autoreek landutako gaiak egin ziren erreferentzia Joxemiel Bidorrek *Irudi-menaren klasikoak euskal literaturan* hitzaldia: «Gehienek gai erlijiosoko testuak zirriboratu zituzten, *a priori* behintzat fantasiari toki handirik uzten ez diotenak. Baina hartzailea herri xumea izan den neurrian, egileak irudimenari leku handiagoa utzi behar izan dio».

Horren adibide, zenbait euskal autore klasikoren testu zatiak era-

kutsi zituen jarraian: Kardaberaz, Larramendi, Mendiburu, Pedro Antonio Aníbarro, Mateo Zabala, Juan Antonio Mogel eta Juan Bautista Agirrerrenak.

Caterina Valriu katalanak iruditeria fantastikoko, historikoko eta modernoko autoreak eta obra klasikoak aipatu zituen: Jacint Verdaguer, Joan Maragall, Arnau kondea eta Saint Jordi. Galiziako literatura klasikoaren iruditeriaren oinarrian hiru autore jarri zituen, oster, Dario Xohan galiziarrek: Rosalia de Castro, Eduardo Pondal eta Manuel Curros Enríquez.